

AFEKTIBITATE ETA HAURRENTZAKO MASAJE LANTEGIA AITATXUEI BEGIRA

Aita eta ni, haurra

AURKEZPENA

Aldaketa ugari ari dira gertatzen gure garai honetan; besteak beste, berdintasuna eta demokrazia tradiziozko usadioei nagusitzen zaizkie apurka-apurka. Familiaren antolamendu zaharra, zeinean emakume eta gizonei zeregin eta ardura desberdinak baitzegozkien, galduz doa azken urteotan, emakumeok plazara atera garenetik. Hala eta guztiz, zerbait eginkizun dago oraindik, gizonak ez baitira guztiz sartu etxean. Izan ere, emakumeek askoz ordu gehiago ematen dute etxeko eta zaingo lanetan, gizonezkoek baino.

Den-denok ahalegindu beharko gara, familiaren ardurak berdintasunez banatuko baditugu gizon eta emakumeok, emakumeek gainean daramaten zama astunagoa oztupo handia baita beste eremuetan jardun ahal izateko.

Portugaleteko Udalak, emakume eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko konpromiso sendoa eginda, Aukera Berdintasunerako V. Plana (2020-2024) prestatu eta onartu zuen. Plana garatu eta ebaluatu behar duen Batzorde Mistoak gogoeta egin du erantzukidetasunaren inguruan eta familia harreman mota berriak azaldu ditu, berdintasunarekin bat datozenak.

Helburu hori darabilgula, bada, eta aurreko edizioetan lortutako arrakasta dela eta, hirugarrenez antolatu dugu haurrentzako masaje eta afektibitate lantegia aitatxuei begira, gizonezko askok seme-alabak zaintzeari dagokionez berenganatu duten zeregin aktiboa sustatu nahian.

Haurra txiki-txikia denean, aita eta amari dagokie zaintzearen ardura. Haurra jaio eta berehala ezartzen diren gurasoekiko loturak eragin zuzena izango du haurraren bizimoduan eta sendotu egingo da esperientziaz eta praktikaz. Horregatik gonbidatzen zaituztet lantegian parte hartzera, dudarik ez baitaukat aitasuna eta seme-alabekiko harremana hobetzeko eta familia giro zorionsuagoa lortzeko baliagarria izango dela.

Mikel Torres
Portugaleteko alkatea

HAUXE DA ERANTZUKIDETASUNA:

Gizon eta emakumeen artean banatutako ardura, familiaren zaingoari eta etxeko lanari dagokienez. Bizikidetzaren funtsa nagusietako bat da.

Familia artean, batetik, erabakiak hartzearen, eta bestetik, familiakide guztien ongizaterako behar diren lan guztien plangintzaren ardura zeinak bere gain hartu eta banatzea.

AITATXUEN KONTUAK

Gizonezkook, gizonezko izateagatik tradizioz esleitu diguten zeregina aldatu behar dugu ezinbestez.

Horrela, seme-alabak zaintzeak ematen duen ordain afektiboa gozatuko dugu, errazago aurkituko dugu aita-betekizuna, sentituko dugu kapaz garela haurrak zaintzeko eta haien nahiei adi egoteko, geure senak eta elkarrekiko beharizanak aurkituko ditugu eta, azkenik, horren guztiaren ondorioz, autoestimua sendotuko dugu, dudarik gabe.

Lantegi hau opari baten modukoa da, afektoen elikadura ematen die aita eta haurrari eta izan daiteke, halaber, seme edo alabarekin denbora luzeagoa emateko modu dibertigarri polita ere bai.

HAURRENTZAKO MASAJEA

Haurrei masajeak ematea beste kultura batzuetan mendetan eta mendetan egin den jardunbide bat da. Beraz, gure gizartean ere masajea txertatzen ari gara haurren lehenengo uneetatik bertatik haiekin erlazionatzeko modua baita maitasunez eta emozioen inplikazioz.

Gauza jakina denez, bizitzako lehen hilabeteetan gorputz-ukipenak eta masajeak batik bat onura ugari dakarkie haurrei alderdi fisikoan nahiz emozionalean, zeren eta, prozesu fisiologikoak erraztu eta hobetu egiten baititu. Gainera, atxikimendu-lotura sendotzen du.

Lantegian haurrari bere garapenean lagun diezaioketen masaje-teknikak ikasiko ditugu. Halaber, toki zehatz bat izango da gorputz-ukipenaren bitartez haur txikiekiko harremana sortu eta bultzatzeko xedez. Esperientzia honek gizonei balioko die zaintza eta hazkuntzari begirako toki eta denbora jakin bat partekatze. Izan ere, hori ez da egunerokoan gertatzen.



Interesik baduzu, beraz, zatoz informazio-saio batera. **Apirilaren 24an 11:30ean egingo dugu, San Roke gizarte etxean.** Izena emateko bidal ezazu mezu elektronikoa bat bienestar@portugalete.org helbidera izena, abizenak eta telefonoa adierazita **apirilaren 21a arte**. Hori horrela, edukierari dagozkion baldintzak errespetatuko dira eta hala badagokio, beste interesdun batzuentzako saioak antolatuko ditugu. **Eskatzen dizuegu, mesedez, informazio-saioa haurrarekin ez etortzea.**

Gizarte Zerbitzuen Saila **94 472 92 12**
bienestar@portugalete.org

SEME-ALABAK ZAINTZEA

AFEKTIBITATE ETA HAURRENTZAKO MASAJE LANTEGIA AITATXUEI BEGIRA



Ardura kontua da
www.portuigualdad.com

Portugaleteko
Udala
Gizarte Zerbitzuak



Ayuntamiento de
Portugalete
Servicios Sociales

2021